

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019)

Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Sektore-bilera: KULTURA
Eguna	2016-11-08
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Iruñea, NAPI egoitzan

Bertaratutakoak

Betisa Anda (Altsasuko Udaleko kultura teknikaria)

Castillo Suarez Garcia (Sakanako Mankomunitateko euskara teknikaria)

Gontzal Agote Los Santos (Bertsozale Elkarte)

Marta Chamorro (Baztango Udaleko kirol teknikaria)

Jokin Campion Gaston (Oltza bailarako kultura teknikaria)

Iñaki Azkona (Iruñeko Udaleko euskara teknikaria)

Euskarabidetik: Eduardo Aldasoro

Elhuyarretik: Idoia Aldekoa

Gai zerrenda

- Ongietorria
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea
- Sektorekako lanketa: elkar ezagutzea eta talde-lana
- Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Euskarabideko Ander Irizarrek egin die ongietorria hurbildutako eragile guztiei. Ongietorria eta Planaren aurkezpena modu bateratuan egin ditugu, Kultura arloko eragileak eta Administrazio arloko eragileak elkartuz. Anderrek Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du lehenbizi, eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza*

eragiten dit.

Aurkezpenaren ondoren, sektoreka banatu gara eta sektore bakoitzeko eragileak gela desberdinetara joan gara sektorearen lanketa propioa egiteko. Behin arlo bakoitzeko eragileak elkartuta, elkar ezagutzeko izen-erronda egin dugu. Jarraian, kultura alorrekin erlazionatzen diren helburuen dokumentua banatu dugu (12 helburu jasotzen dituen) eta talde txikietan honako galderen gainean jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan botatzen duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?

	KULTURA arloarekin lotutako HELBURUAK:
1.1.	Euskararen gizarte erabilera handitzea, erabilera sustatuz eta hizkuntza ulertzen badute ere mintzatzeko ohiturarik ez duten hiztunak aktibatuz.
1.2.	Euskaraz eskolatu diren gazteen harreman ez-formaletan eta lagunartekoetan euskararen erabilera handitzea..
1.3.	Komunikaziorako tresna teknologikoak euskararen gizarte erabilera emendatzeko inbertsio estrategikotako jotzea, euskararen erabilera beste edozein hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez.
1.5.	Eskolaz kanpoko jarduerak eta, oro har, aisialdi antolatuen esparruak haur-gaztetxoek hizkuntza portaeretan duen eraginkortasuna hobetzea, beraiei artean euskaraz egiteko ohitura sortu eta sendotzeko.
1.7.	Euskarazko sormenezko kultura produktu eta jardueren eskaintza zabaltzea euskararen bidez hiztunak bizi duen esperientzia estetiko eta zirrarakoa euskararen erabileraren sendogarria izateko.
1.9.	Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten.
2.2.	Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko arloetan, batik bat aisialdi, kirol eta kultura jardueretan; haur-gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko.
4.1.	Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz.
4.2.	Euskara bere errealitatekin urrun sentitzen duen populazio nafarrari hizkuntza hori hurbiltzea.
4.4.	Informazio eta komunikazio teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatuzko estrategiatzat.
5.2.	Euskara produktu nagusia duten turismo estrategiak garatu eta abian jartzea, turisten bisita kopurua eta aldiko Nafarroan igarotzen dituzten gau zenbatekoaren batez bestekoa handitzea ekarriko duten ekimenak euskararen inguruan sortzeko.
5.3.	Euskara balio erantsiko elementua den arlo ekonomikoetan negozio aukerak

sustatzea, Nafarroarako irabaziaz eta garapen ekonomikoa ekarriko dituztenak.

Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa. Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Aisialdi eta kultur eskaintza paraleloa sortzen gabiltza. Erdaldunak euskal mundura erakartzeko eskaintza elebiduna sortzea izan daiteke aukera bat eta hor jardungo duten begiraleak ondo trebatzea irizpide eta helburuetan. Euskararentzat espazio propioak ere mantendu behar direla aipatu da, baina erdaldunek ere tokia behar dute euskal munduan. Honen aplikagarritasuna ondo aztertu beharko litzateke eremuaren arabera, eta ekintzen definizioak ere bere konplexutasuna izan dezakeela aipatu da.
- Gazteei zuzendutako ekintzak ez daude antolatuegi? Arautuegiak?
- Euskara elkarbizitzarako eta integrazioarako giltza izan daiteke.
- Garrantzitsua da euskaldunak euskaldunekin harremanetan jartzeko bideak lantzea. Arnasguneak hiri barnean sortu ditzakegu, kontzeptu hori ez dugu zertan soilik territorialitatearekin lotu.
- Kirol-mundua euskalduntzea gakoetako bat da, eta hor jarduten duten begiraleekin lan egitea.
- Hedabideetan gazte eta umeei begirako programazioa lehenestea.
- Hedabideak eta teknologia berriak kontzientziaziorako tresna bilakatu daitezke.
- Euskarazko sormen produkzioa bultzatzea oso ondo dago, hau prestigioarekin lotu beharko litzateke.
- Sorkuntza-sareak edo bestelako sare batzuk sortzeko sariak erabiltzen diren bezalaxe, erreferente positiboak edo praktika onak identifikatzeko dinamika bat sortzea.
- Harreman eta hitzarmenen gaia, Eusko Jaurlaritzarekin harremana izatea soilik helduen euskalduntzearekin lotutako helburuan aipatzen da (2.4.). Oro har, modu orokorrago batean jaso beharko litzateke, ez soilik helburu horri atxikita.
- Turismoarekin lotutako atalean (5.2.), produktuari oso begira dago helburua formulatuta. Turismo-bulegoek kontzientziazio lanean ere eragile izan daitezke, turistei hizkuntza eta kulturaren ingurukoak hurbilduz...
- Euskarazko produkzioa sustatzea oso ondo dago, baina horrek atzetik euskaraz kontsumituko duen publikoa behar du.
- Administrazioetik egiten den euskarazko jardueren eskaintza handitu egin behar da eta hori

prestigiorako lagungarria izango da, baina, beti ere, kalitate- edo kontrol-mekanismo batzuk baditugu, antolatu den jarduerak edo ekintzak hizkuntza-kalitatea bermatzen duela ziurtatuko dutenak. Izan ere, hizkuntza-kalitatea bermatzen ez duen ikuskizun edo jarduera bat prestigiorako kaltegarria da. Bereziki aipamena egin da ikus-entzunezkoen kasuan, eta kalitatea zaintzen ez bada alderantzizko helburua lortzen dugula, desprestigiatzea.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Kontraesana ikusten da. Non dago zeharlerrotasuna? Kulturaren plangintza oraintxe egin berri da eta bi plangintzen helburuak ez dira uztartzen, momentu batean ere batek ez su bestearengan isla.

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Triste, bi planek (euskarakoak eta kulturakoak) jarraitu duten bideekin. Horrek esan nahi du denak berdin jarraituko duela.
- Administrazioa gehiegi, kultur eragile gutxiegi.
- Adostasuna.
- Aberastasuna.
- Helburuetan ados gaude, ekintzak dira zehaztu behar direnak. Ondo legoke, planaren aurkezpena pixka bat laburrago egitea eta eztabaidarako denbora gehiago izatea.

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (Sektore-bilera: KULTURA)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		2	3	
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			5	
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA		1	4	
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA		3	2	
GIROA ATSEGINA IZAN DA			2	3
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA		2	2	1
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		3	1	1
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU		2	2	1
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA		3	2	
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU		1	3	1

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK: